



"Oskarbi Oinetakoak" 2014ko Gipuzkoako Merkataritza Enpresa izendatu du Gipuzkoako Bazkondeak

- *Ordiziako Oskarbi Oinetakoak, 20 urte oinetakoen sektorean lanean dabilen espiritu berritzaileko enpresa da.*
- *"10 bitxiak" izendapenaren barruan Gipuzkoako etxea eta kultura sektoreko hamar merkataritza enpresa esanguratsuenak saritu dira.*
- *Sari banaketa ekitaldia gaur gauean burutu da Gipuzkoako Bazkundeko egoitza,n eta Martin Garitano, Gipuzkoako Aldun Nagusia eta Itziar Epalza, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo Sailburuordea izan dira bertan. Ekitaldia Kutxabank-ek eta Euskaltel-ek babestu dute.*

Donostia, 2014ko azaroren 28a. Ordiziako **Oskarbi Oinetakoak** enpresa komertzialak 2014ko Gipuzkoako Merkataritza Enpresa saria eskuratu du. Saria Gipuzkoako Bazkondeak banatu dituen Gipuzkoar Merkataritza Enpresa Sarien XXII. edizioan jaso du, bertan Martin Garitano, Gipuzkoako Aldun Nagusia eta Itziar Epalza, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo Sailburuordea izan dira. Sari banaketa ekitaldia **Kutxabanke** eta **Euskaltele** babestu dute eta Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Dinamizaziorako Bulegoen laguntza jaso du.

Oskarbi Oinetakoak espiritu berritzailea duen enpresa indartsu eta gaztea da, oinetakoen sektorean 20 urte lanean daramana. Oskarbi Gurrutxagak bideratzen duen, Oskarbi Oinetakoak enpresa bezeroari bideratuta duen strategiagatik, hazitzeko duen gaitasunagatik, lanpostuak sortzeagatik eta on-line salmenten bitartez gaurko garaitera egokitzeagatik jaso du saria.

1994ean, Ordizian irekitako denda txiki batekin hasi zuen bere ibilera gaur saritutako enpresak. Urte batzuk beranduago berriz, Oskarbi Gurrutxagak, estrategia aldaketa bat egin zuen eta denda berri bat ireki zuen Beasainen. Denda berri honen irekierarekin erakusleihoei eta produktuaren kokapenari eta banaketari garrantzi handia ematen hasten da, bezeroei harreta berezi bat eskaintzen dien bitartean.

2002 eta 2004 urte bitartean hiru denda gehiago inauguratzen dira: 2002an Zumarragan, 2003an Ordizian eta 2004ean Arrasaten. Hazteko helburuarekin jarraituz nazioarteko ferietara joaten hasten dira eta piskanaka denda gehiago irekitzen jarraitzen dute. Gaur egun, Oskarbi Oinetakoak enpresa 26 pertsoneri lana ematen dien 10 dendez osatzen da, orain gutxi inaguratu dituzten bulego eta logistika zentruaz gain.



Dendak Ordizia, Beasain, Zumarraga, Arrasate, Donostia, Eibar, Irun, Olaberria eta Oiartzungo kale komertzialetan kokatuta daude.

Aipatutako denda hauez gain, Oskarbi Oinetakoak online denda du, baita blog bat ere eta Sare Sozialetan presentzia handia du. Web gunea 2013an sortu zuten eta gune honen bitartez egiten diren salmenten %40a Euskadin egiten dira.

Oskarbi Oinetakoak duen filosofia ere aipatzeko da: lantaldeko lana, informazioaren gardentasuna, ingurumenarekiko eta gizartearekiko errespetua, eta baita adeitasuna, kalitatea, konpromesua eta erantzunkizuna. Balio hauek kontutan hartuz eta egungo egoera ekonomikoa aintzat hartuz marka txuri bat sortu eta komertzializatu dute sektore bereko beste enpresari batzuekin, kalitazteko marka prezio bajaran lortuz. Aipatu beharra dago ere, Oskarbi Oinetakoak "Proyecto Ciclista Solidario" proiektuarekin elkarlaneran aritzen dela eta Malin osasun zentru bat inauguratzea lortu dutela.

"10 bitxiak"

Edizio honetan, aurrekoan egin zen bezalaxe, Gipuzkoako Bazkondeak Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Dinamizaziorako Bulegoekin egin du lan, sariak Gipuzkoa osora gerturatzeko helburuarekin. Sariak partehartzaileagoak eta esanguratsuagoak bihurtuz. **Gipuzkoako sariak.**

Helburu hau argi eta garbi islatzen da "10 bitxiak" sarian, eskualde bereko merkatariek direlako Gipuzkoako 10 merkataritza enpresa nabarmenenak aukeratu dituztenak, lurraldeko merkataritza bitxien mapa sortuz.

Aurten saria **etxea** eta **kultura** sektoreko dendetan oinarrituta egon da. Eta hauek dira Gipuzkoako merkatariek saritu dituzten dendak. Deba Garaia eskualdekoek **Bergarako Gorosti Loradenda** saritu dute. Urola Garaikoek **Zumarragako Argiki** (argi denda). Debarrena eskualdekoek **Elgoibargo MG Etxea Burdindegia** eta Bidasoaldekoek **Hondarribiako Endanea Elkartea** (lorazaintza eta dekorazioa) saritu dute, **Donostian Abar Informatika** saritu duten bitartean. Donostialdean berriz, **Hernaniko Ikusi Makusi** (jostailu denda) saritu dute eta Goierri aldean **Beasaingo Mujika Aramendia Decoración**. Oarsoaldea eskualdean **Erreterriako TM Diseño** saritu dute eta Tolosaldea eskualdekoek **Tolosako Arregi Floristeria** (loradenda). Urola eskualdekoek, azkenik, **Azkoitiako NHO Ainhoa Etxaniz Estudioa** saritu dute.

Eskualdeko merkataritzaren ezaugarri diren balore, irudi eta prestigioa adierazten dutelako saritu dituzte merkatariek hauek guztiak "10 bitxiak" sariarekin.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irene Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347